

ZAKILIXUT

© Olariagak



«Toponimo hilezkorra gure geografian»

UEUk ohorezko kide izendatu zuen Txillardegi, astelehenean egindako omenaldi xumean

LEHEN joder! Euskararen kulturaren zapalketa testua irakurtzen hasi zirenean etorri zen. Bigarrena Joxe Ramon Etxebarriak *Putzu* azken eleberraren zati bat irakurri zuelarik. Hirugarrena *Haizeaz bestaldetik* irakurtzen hasi zirenean. Laugarrena izango zen Koldo Izagirrek baieztatu zuenean UEUko lagunek prestatutako gorazarrea zela hura, zeren bosgarren biraoa bota baitzuen unibertsitate jubilatua zegoela esan zutenean. Oholtza gainera aterarazi zutenean, orduan mehatxuka hasi zen: «Hau alukeria», «ez dizuet barkatuko».

UEUn mundu guztiak zekien Jose Luis Alvarez Enparanza Txillardegi-ri iluntzean omenaldia egin behar ziotela. Mundu guztiak, Txillardegik izan ezik. Horregatik, Larraonan ohikoa den kafearen orduan denek begiratzten zioten zeharka eserita zegoen mahaira, ea areto nagusira susmo txarrik piztu gabe eramango zuten...

Eraman zuten, eta sekulako sorpresa hartu zuen. *Peru Leartzako* liburuko zatia irakurtzen hasi zitzaizkion. Txillardegi, hirugarren lerroan, harri-



JOSU SANTESTEBAN

tu samarturik, baina tira. Fito Rodriguez igo eta *Hizkuntza eta pentsakera* liburua irakurtzen hasi zenean besaulkian deseroso mugitzen hasi zen. Gainerakoarekin, bada, esandakoa.

Denen ondotik Koldo Izagirre mintzatu zen. Esan zuen mundua aldatzeko prest dagoen filosofoa zela Txillardegi; iraultza literarioa bideratu zuela, politikak kitaezinezko zorra duela berarekin, eta artikulugintzan eta entsegutan ezinbestekoa dela bere sinadura. Alderatu zuen beste intelektual zenbaitekin, eta epiteto ederra luzatu zion: «Txillardegi toponimo hilezkorra da gure geografian». Honek, orduan, zapia atera zuen.

Makila eman zioten opari

Gero altzarazi zuten *Euskal Herria* helburu lema zizelduta zuen makila jasotzeko, eta, txaloen artean, ezkutatuta zegoen pianoaren aurrean ese-



Hunkituta jaso zuen Txillardegik ezustekoan iritsi zitzaion omenaldia. Pianoa ere joarazi zioten UEUko lagunek.

ri eta jotzeko eskatu zioten. «Hau alukeria» errepikatzen zuen berak, apur bat emozionatuta.

Fito Rodriguezek esan zuen gero bere erradikalatzean dartzala intelektuala izatea, eta kataluniarra baltz dagoeneko figura nazionala izango zela. «Egoera

normalizatzen denean berreskuratuko dugu Txillardegi bere balore guztiak, eta ez oraingo txuri-beltzean».

Bera, oholtza gainetik, ahalegintzen zen piano elektrikoarekin. «Piano txar eta txikia da hau», errepikatzen zuen. «Diferentea da, ebidentementea», azpimarkatzen.

Alberto Barandiaran
 IRUÑEA

tolosa

- ERROKALDEA
- AUTONUMERAZIAGAN
- AEBULUO ENBENBETZIALAK
- KENBULUAK
- HANPHEGIAK
- HONPHEGIA TALDEAK
- FURSOPIETA

Aldeko Indutaleko - Aldeko 30203
 Tel: 943 45 14 65 - Fax: 943 45 14 64
TOLOSA

UEUn mundu guztiak zekien Jose Luis Alvarez Enparanza Txillardegi-ri iluntzean omenaldia egin behar ziotela. Mundu guztiak, Txillardegik izan ezik